

AEK HISTORIA ETA GAURKO EGOERA

AEKren sustraiak 60ko hamarkadan sortu zen alfabetatze mugimendua errotzen dira, hain zuzen ere orduko administrazio eta instituzioen borondatearen kontra herri ekimenak, Euskaltzaindiaren babesean, sortutako erantzunean.

AEK izena 76an hartu zuen, Bizkaiko euskal eskolen koordinazioan oinarrituta.

77-78 ikasturtean Didaktika taldea eratu eta metodologiaren inguruko sakonketari ekiten zaio URRASPIDE aldizkaria atereaz, orduko euskara irakasleen gida laguntzailea. Urte hauetako lanen ondorioz HORMIRUDIAK komunikazioan oinarritutako metodoa atera zen 80an.

Urte hauetan ere Euskadiren erakundetzéa hasten da eta orduko Eusko Kontseilu Nagusiak 79an euskalduntze alfabetatzea egituratzeko proposamena egin zion AEKri. AEKk garai hartako lehen eztabaida garrantzitsua burutu ostean bi baldintza jarri zituen: AEKren barru funtzionamendua eta lurraldetasuna errespetatzea. Ez zen erantzunik izan eta une honetatik aurrera Komunitate Autonomoko erakundeek beren sarea eraikitzeari ekin zioten, gaur arte irauten duen zatiketari hasiera emanez.

80an AEKk lehen Korrika antolatu zuen, Oinatin hasi eta Euskal Herriari jira eman ondoren Bilbon bukatuz.

81ean Helduen Euskalduntze Alfabetatzerako egitasmoa kaleratu zuen AEKk: zerbitzu publikoa(dohan), nazionala (lurralde osoan), herriaren parte hartzea kontutan hartuz eta jestio demokratikoan oinarritua.

Ordudanik AEKk helburu horiei erantzun nahian dihardu eta helburu horien arabera helduen euskalduntze alfabetatzerako zerbitzua aldarrikatu du. 81ean, era berean, AEKk bere koordinazioa Iparralderaino eramane zuen handik aurrera mugimendu honek mugaren bi aldetan diharduelarik.

Instituzioak

HABE institutua lehenagotik sortu bazen ere, 83an Gasteizko legebiltzarrak HABESEA legea onartu zuen. Legea AEKrekin, orduan zeregin honetan ziharduen talde ia bakarrarekin, hitz egin gabe atera zen.

Honen arabera Jaurlaritzak ez du sarea bere erantzukizunpean hartzen, eta aukera uzten da ekimen publikoko euskaltegiak sortzeko Jaurlaritza, Ahaldundi eta udaletxeen esku. Bestalde ekimen pribatuko euskaltegiak izan daitezke.

Nafarroa eta Iparraldeari buruz ez du ezer esaten.

Irakaskuntza arautua hartzen du eredu.

Sortzen diren Jestio Organuek (Patronatoa eta Batzorde akademikoa) ez dute helduen euskalduntze alfabetatzeko enordezkaritza kontutan hartzen eta goitik behera egindako egitura osatzen dute.

Hortik aurrera legea garatuko duten ebazpenak aterako dira honako gauzak arautuz:

-ekimen pribatuz sortutako euskaltegiak homologatu eta libreak izan daitezke.

Zentru homologatuek irakasle karreradunak izan behar dituzte: EGA, majisteritza edo bestelako diplomatura edo lizentziatura dutenak.

Karrerarik ez zuten irakasleek libreetan ihardun dezakete. Gogoan hartu garai hartan esperientziako irakasle asko ziharduela lanean, nahiz eta karrerarik izan ez. Hauentzat jarri zen homologazio bidea oso estua izan zen: jadanik 10 urte eskolak ematen eramatea (froga ezina zena garai hartan) edo 5 urte eta froga kanporatzailea gainditzea.

-diru laguntzak bideratzen dira: udal euskaltegiak finantziatzeko udalekin konbenioak, ekimen pribatuko euskaltegientzat subentzio moduloak: orduan 70 homologatuentzat eta 35 libreentzat, ikasle eta orduko.

-ikastaro moduloak: intentsiboak eta urte osokoak bultzatzen dira batez ere.

-HABEren barne egitura sortu: glotodidaktika saila (formakuntza eta ikerketa) eta ikuskatzailatza saila (Euskaltegiekin harremana bideratzeko).

Legeria honek sortu dituen ondorioak honako hauek dira:

-sare oso sakabanatua: udal euskaltegiak, pilotoak, hitzarmenezkoak, homologatuak, libreak, harreman gutxi beraien artean eta ihardunaren inguruko arazo amankomunak aztertzeke ere aukerarik ez.

-dohantasunik ez dago.

-diskriminazioa sortzen da euskaltegien artean: udal euskaltegiak 400 ptako kostu errealean funtzionatzen duten bitartean, homologatuek 105 ptako subentzioa jasotzen dute eta libreek 42, ondorioz kostu erreal bajuagoetan aritu beharra dagoelarik eta matrikula prezio haundiak izan: HABEk berak ezartzen du 60 ptako gutxienezko kopurua ikasle eta orduko zentru libre eta homologatuentzat.

-ikerketa eta formakuntza arloak ez dira batere landu, eta elkarreok geure kontu egin behar izan diogu aurre arazoari inolako laguntzarik gabe.

-ez dago plangintza orokorrik, eta horren azpian helduen euskalduntze alfabetatzearentzat urtez urteko helbururik, gizarte osoa euskalduntzeari begira. Alderantziz, filosofia, gaurko egoeran datorrenari erantzutea da. Gainera udalek ezin diote aurre egin euskalduntze masiboaren planteamendu bati.

Nafarroan 88an onartu zen Baskuenzearen legea eta horren ondoren helduen euskalduntze alfabetatzerako dekretua, HABEren ereduan oinarrituz. Hala ere dekretua ez da garatu bere puntu gatazkatsuenetan gaur arte, eta lehenago tirabirak izan badira ere gaur elkarrizketa da nagusi euskalduntzerako elkarrekin. Ekimen publikoak euskaltegi bakarra sortu du eta besteontzat subentzio moduloa 65 pta. ikasle eta ordukoa da.

Iparraldean ez dago inolako ofizialtasunik euskalduntzearentzat eta helduen euskalduntze alfabetatzeak ez du laguntza ofizialik jasotzen. Hala ere azken aldi honetan Euskal Kultur Erakundea sortu denetik, egitura horrek bideratzen du laguntza bat.

AEK

Legediaren ondorioz Komunitate autonomoan AEK, nahiz eta izaera publikoa aldarrikatu, ekimen pribatu gisa funtzionatzera behartuta dago.

AEKk ez zuen onartu legearen prozesua berarekin ez zelako hitz egin, goitik behera ezarria izan zelako eta erizpideak onartzen ez zituelako. Hala ere legea jasan behar izan du eta horrela, ikasle kopuruetan AEKren pisua haundia izan den arren subentzio zati txikiena hartu du beti. Izan ere, legearen ondorioz AEKko euskaltegi gehienak libre egoeran gelditu ziren eta horrela darraite gaur egun.

Gainera zentru libreen gaineko baldintzak gogortuz joan dira: gutxienezko ikasle kopurua (48), taldeko gutxienezko ikasle kopurua (12), irakasleak karreradunak izan behar 89tik aurrera. Horren gainean HABEren ikuskatzailatzat kontrol estua darama eta subentzioetan behin eta berriro kenketak eragiten ditu. Egoera honetan Komunitate autonomoan 8.700 ikasle baino gehiago aurkitzen da.

Nafarroan lehen esan bezala homologazioaren erizpidea ez da garatu, hango egoera soziolinguistikoan euskara irakaslea izateko prest daudenei karrerak esijitzea luxua litzatekeelako. Langintza hau ekimen sozialaren esku dago ia osorik (AEK eta IKA).

Iparraldean AEK bakarrean ari da langintza aurrera eramaten, baina baldintza eskasenetan. Izan ere borondatezkoa da hango irakasleagoa, oso dedikatu gutxi dago langintza honetara eta ondorioz ihardunaren eraginkortasuna mugatua aurkitzen da.

Egoera honen ondorioz gaur Euskal Herrian badira 11.000 baino gehiago gutxienezko laguntzen azpiko egoera batetan euskara ikasten ari direnak.

AEK-REN EKARPENA GAUR

91-92 ikasturtean AEKn ikasten izan diren ikasle kopuruak hauetxek izan dira:

Bizkaian 5.893, Gipuzkoan 3.270, Nafarroan 2.012, Araban 1.167, Iparraldean 661.

Lehendabizi dago AEKren borondatea Euskal Herria euskalduntzearen zerbitzuan egoteko eta helburu horri begira bere iharduna beti egokitzeke.

Hortik abiatuta planteiatzen du AEKk helduen euskalduntze alfabetatzean gaur elkar lana beharrezkoa dela, sail honetan gabiltzanon artean eta instituzioekiko, euskaldunon kopurua

igo eta erabilpena haunditzeko beharrezkoa delako gaurko egoerari irtenbidea ematea.

Motibazioan eraginez AEKk kanpaina erraldoiak burutzen ditu beraietan ahalegin ekonomiko eta pertsonal haundiak jarritz, inolako laguntzarik gabe. Aurtengo kanpaina (92-93) oraintxe abiatu da GERO GEROKOAK, ORAIN EUSKARAZ BIZI lemapean.

Euskal Herri osora euskara eskaintza eramaten saiatzen da, bere partaideen borondate maila haundi batetan oinarrituta.

85etik hona AEKk bere metodolojia euskararen egoerari erantzuteko ere baliagarria behar duela izan eta, kulturgintzan oinarritutako bidea bultzatzen du. Honi begira didaktika mailako egiturak, tailerrak, argitalpenak, glotodidaktika ikastaroak irakasle berrientzat, antolatzen ditu.

Une honetan eta egoerari erantzun nahiz eskaintza zuzenagoak prestatzeko beharra ikusi eta horiei ekin dio, batez ere gurasoen euskalduntzea eta alfabetatzeari begira.

Jon Mari Mendizabal
Gipuzkoako AEKko arduraduna